



HIZKUNTZEN IKASKETA SUSTATZEA KATALUNIAKO GOI-MAILAKO HEZKUNTZAN: POMPEU FABRA UNIBERTSITATEKO (UPF) ELEANIZTASUNERAKO EKINTZA-PLANA (2007-2013)

Carmen Pérez-Vidal

Pompeu Fabra Unibertsitatea

Helbide elektronikoa: carmen.perez@upf.edu

1. SARRERA

Pompeu Fabra Unibertsitatea (aurrerantzean, UPF) Bartzelonako unibertsitate kataluniarra da, eta honako xede hau dauka hizkuntzei dagokienez: katalana erabili nahi du beti erakundean, hau da, koofiziala den hizkuntza espainiarra erabili nahi du, ikasle askok dakitena eta erabiltzen dutena, eta ingelesa ezarri nahi du lanerako hirugarren hizkuntza gisa ikasketa- eta ikerkuntza-gaietarako. Horretarako, Eleaniztasunerako Ekintza Plana (PAM) landu du UPFk, hizkuntzen gaineko Europako gomendioekin bat etorritik. PAMen helburua da gure unibertsitatean hizkuntza-politika bat lantzea laneko hiru hizkuntzak sustatzeko, eta, ahal denean, baita laugarren hizkuntza bat ere.

UPFk bikaintasunezko unibertsitate kataluniar bihurtu nahi du, eta nazioartekotzea eskatzen du horrek, "etxean nazioartekotzea" (IaH - *Internationalisation at home*) eta eleaniztasuna barne hartuz. Horrez gainera, hizkuntza katalana zaindu, sustatu eta bultzatu nahi dugu, bai eta horren atzean dagoen kultura ere, gure gizartearen nortasun-ikur dela-

ko, eta horren arduradun garelako. Unibertsitatearen eginkizun garrantzitsua da, erakunde gisa, eremu urrikoa den eskualde-hizkuntza sustatzea, eta helburu hori lortu nahi du UPFk katalanari dagokionez.

PAMek, bestalde, hizkuntza-segurtasunaren printzipioa zehaztu du; horri jarraiki, unibertsitateak konpromisoa hartu du jendeari jakinarazteko zer hizkuntza erabiltzen den ikasketa-jardueretan. Informazio hori eskuragarri egongo da edonorentzat, eta loteslea izango da, katalana irakaskuntza-bitarteko gisa erabiltzen jarraitzeari dagokionez batez ere. Gela eleaniztunen politikari esker, ikasleek laneko hiru hizkuntzak erabili ahal izango dituzte, bai ahoz, bai idatziz, irakasleak edozein hizkuntza erabiltzen duela ere. Bologna prozesuko titulu berrietarako politika espezifikoez ingelesa ezartzen dute atzerriko lehen hizkuntza gisa, gaztelaniaz eta katalanaz gainera. Honako egitasmo hau ezarri da: ingeleseko azterketa orokorra egingo diegu ikasleei goi-mailako ikasketak hastean, horien maila egiaztatuko dugu 2. maila amaitzean, curriculumean 16 ECTS kreditu lortu beharko dituzte Edukien eta Hizkuntzen Ikasketa Integratuaren (CLIL) alorrean, mugikortasun-programak eta nazioarteko praktikak sustatuko ditugu, eta atzerriko bigarren hizkuntza bat ikasteko gomendioa egingo diegu ingelesean B2 maila duten ikasleei.

2. HIZKUNTZA-POLITIKA UNIBERTSITATE-MAILAN

Goi-mailako hezkuntzako erakundea da UPF; zortzi sail ditu, hamalau titulu, graduatutako eta graduatu gabeko tokiko 8.000 ikasle, 600 langile akademiko, eta administrazioko 400 langile. 2000. urteaz geroztik, UPFren barne-araudiak xedatzen du katalana izango dela unibertsitateko hizkuntza nagusia, bi hizkuntza ofizial (katalana eta gaztelania) dauden testuinguru honetan; eta, beraz, irakasle guztiek izan behar dutela hori ulertzeko gai. Katalana erabiltzen da erakunde- eta administrazio-kudeaketan. Administrazio-langile izateko, B2 maila eduki behar da derrigorez, eta hala gomendatzen zaie irakasleei ere.

Berriki, 2007an, Hizkuntzen Sustapenerako Errektoreordetza berriaren zuzendaritzapean, Eleaniztasunerako Ekintza Plan (PAM) berria landu du UPFk, eta sei urteko iraupena izango du horrek. Erakunde osoari eragingo dio planak, eta politika zehatza ezartzen du Bologna prozesuko titulu berrietarako. UPFn, 2009tik aurrera ezarri dira titulu horiek. Ekintza-plan hori diseinatzeko, bai eta hori eragin zuen testuingurua ere, kontuan hartu dira eleaniztasunari eta Jakintzaren Europa berri horretako lehiakortasun orokorrari buruzko Europako gomendioak (ikus Europako Batzordea, 1995, 2003; Orban, 2007). Horren xede nagusia da norbanakoen eleaniztasuna bermatzea hezkuntza eleaniztunaren bidez (ikus Cenoz & Genesee, 2002).

Hirugarren milurtekoaren hasiera honetan, buru-belarri dihardugu Europa eraikitzeke lanean. Goi Hezkuntzako Europar Eremu bat sortzea eta ikasleen eta langileen mugikortasuna sustatzea dakar horrek (ikus

Pompeu Fabra Unibertsitatea (aurrerantzean, UPF) Bartzelonako unibertsitate kataluniarra da, eta honako xede hau dauka hizkuntzei dagokienez: katalana erabili nahi du beti erakundearen, hau da, koofiziala den hizkuntza espainiarra erabili nahi du, ikasle askok dakitena eta erabiltzen dutena, eta ingelesa ezarri nahi du lanerako hirugarren hizkuntza gisa ikasketak eta ikerkuntza-gaierarako. Horretarako, Eleaniztasunerako Ekintza Plana (PAM) landu du.

Barne-araudiak xedatzen du katalana izango dela unibertsitateko hizkuntza nagusia, bi hizkuntza ofizial (katalana eta gaztelania) dauden testuinguru honetan; eta, beraz, irakasle guztiek izan behar dutela hori ulertzeko gai. Katalana erabiltzen da erakunde- eta administrazio-kudeaketan. Administrazio-langile izateko, B2 maila eduki behar da derrigorrez, eta hala gomendatzen zaie irakasleei ere. Xede nagusia da norbanakoen eleaniztasuna bermatzea hezkuntza eleaniztunaren bidez.

Tudor, Tudor & Mackiewicz, 2003). Ezinbestekoa da pertsonak zenbait hizkuntza jakitea, Europako bateratasuna eta mugikortasuna gauza daitezzen. Hori horrela, testuinguru horretan, Kataluniako Gobernuak hainbat gomendio egin dizkie goi-mailako hezkuntzako erakundeei; helburua da goi-mailako ikasketak egiten ari diren ikasleek beren hizkuntza-gaitasuna hobetzea atzerriko hizkuntza batean (ingeleza), eta unibertsitateko administrariak katalanaren erabilera sustatzea goi-mailako hezkuntzan.

Testuinguru horretan, Pompeu Fabra Unibertsitateak, 1990ean Barzelonan gobernuaren funtsekin sortutako unibertsitateak, mantendu egin nahi ditu bere ezaugarri izan diren eta diren bikaintasuna eta zerbitzu-ematea irakaskuntza- eta ikerketa-jardueran. Helburu hori lortu nahi du munduarekiko eta nazioarteko komunitatearekiko irekitasunaren ikuspegitik, baina leial izan nahi du unibertsitatea bera sortu zuen eta sustatzen duen gizartearekiko. Hain zuzen ere, zaindu egin nahi ditu gizarte horretako nortasun-ikurrak —hizkuntza, kultura eta idiosinkrasia katalana—, asko zor baitio gizarte horri. Eremu urriko hizkuntza da katalana, esparru espezifikoko batzuetan bereziki. Horrek beste erronka bat gehitzen du unibertsitateak munduaren aurrean aurkeztuko duen irudia apaintzeko testuinguru berri horretan. Erronka horri aurre egiteko, irtenbide originalak aurkitu beharko dira —agian, inoiz erabili ez direnak—, eta iraunkortasunez lan egin beharko dugu oreka egokia lortzeko beharrezko nazioartekotzearen eta gure nortasun-ikurrak zaintzearen artean.

Horren ondorioz, erakundearen asmoa da kontuan hartzea eleaniztasunaren gaineko Europako gomendioak ikasketak eta lanbide-jardun ona lortu ahal izateko, nazioartekotzea gero eta hedatuago baitago mundu-mailan, eta, era berean, indarrean dagoen legediarekin bat etortzea. Beraz, Pompeu Fabra Unibertsitateak konpromiso zorrotza hartu du hizkuntzak ikasteari, mugikortasunari eta kulturen arteko elkarrizketari dagokienez, kultura katalana ardatz hartuta, batasuna sustatzeko aniztasunaren eta nazioarteko elkar ulertzearen baitan. Era berean, munduko hizkuntza- eta kultura-aniztasuna sustatzeko, zaintzeko eta mantentzeko bitarteko izan nahi du (ikus Europako Batzordea, 2008; ingelesaz gainera beste hizkuntza batzuk sustatzeko erronka aztertzen du dokumentuak). Beste hitz batzuetan esanda, herriari zerbitzu emateko nahi garbia eta irmoa du UPFk; hori dela eta, alde batetik, katalana erabili eta sustatu nahi du. Hori da unibertsitateko hizkuntza ofiziala eta tradizionala, irakaskuntzan indar eragile da —hirugarren zikloko ikasketetan bereziki—, eta unibertsitateko administrazioko hizkuntza ofizial ere bada, integrazio-hizkuntza gisa. Eta, era berean, UPFk irakaskuntza-arlo berriak zabaltzeko nahi ditu beste hizkuntza batzuentzat, ingelesarentzat bereziki —baina ez horrentzat bakarrik—, nazioarteko komunikaziorako eta ikasketen eta zientziaren hedapenerako hizkuntza baita. Helburu horrekin, hirueletasunerako bideari ekingo dio pixkanaka unibertsitateak; bidea luzea izango da agian, eta ez du atzera

bueltarik izango; etorkizun eleaniztun batera zuzenduko ditu gizarte katalana eta unibertsitatea bera.

Asmo horiek oinarri hartuta, Pompeu Fabra Unibertsitateko Eleaniztasunerako Ekintza Plana diseinatu du Pompeu Fabra Unibertsitateak. Hogeita bost ekimen eta helburu zehazten ditu horrek; horien bidez, unibertsitateak aldaketa-prozesu hori sustatuko eta bideratuko du, aurrerapausoak emateko etorkizun hirueledun horretarantz. Pompeu Fabra Unibertsitateko Eleaniztasunerako Ekintza Plana ez da lehenengo pausoa; ez gara ezerezetik abiatu. Aitzitik, unibertsitateak urteetan zehar landu ditu plan horrek jasotzen dituen hainbat arlo, helburu eta ekimen. Pompeu Fabra Unibertsitatea sortu zenetik horren ezaugarri izan diren kontzeptuaren eta metodologiaren definizioa, gauzatzea, hurbilketa sistematikoa, eta erakundearen gogo bizia erakusten ditu plan horrek. Hona hemen ekintza-plana.

3. POMPEU FABRA UNIBERTSITATEKO (UPF) ELEANIZTASUNERAKO EKINTZA-PLANA

Pompeu Fabra Unibertsitateko Eleaniztasunerako Ekintza Planaren helburua da esparru eleaniztun bat eraikitzen laguntzea¹, hizkuntza eta kultura katalanaren zaintzan eta sustapenean oinarrituta². Horrela, baldintza egokiak sortu nahi dira hizkuntza- eta kultura-trukerako, bai eta UPFko unibertsitate-komunitateko kide guztien hobekuntza pertsonalerako ere. Beraz, zenbait hizkuntza erabiliko dira elkarreraginean jarduerak administratiboak, akademikoak eta instituzionalak gauzatzeko.

Horrek erronka hirukoitza dakar epe motzerako eta ertainerako. Lehenik, zehaztu egin behar da katalanak unibertsitateko hizkuntza ofizial eta tradizional gisa duen papera; hau da, ardatz izan behar du unibertsitateko jarduerak administratiboetan eta akademikoetan —hirugarren zikloan bereziki—. Bigarrenik, beste hizkuntza batzuen erabilera ere bermatu behar da. Hasiera batean, gaztelania eta ingelesa erabiliko dira; lehena, Kataluniako hizkuntza koofiziala delako, eta bigarrena, nazioarteko komunikaziorako *lingua franca* delako. Horien bidez, jakintza transmititu eta harremanak ezarri ahal izango dira beste pertsona eta erakunde batzuekin, eta, horrela, unibertsitateak bere jarduerako esparru guztietan ospe ona lortzen duela bermatuko da. Eta, azkenik, beste hizkuntza batzuen erabilera selektiboa sustatu edo sartu beharko da unibertsitateko jardueretan. Honako hizkuntza hauek sustatu beharko dira: gure kokapenagatik hurbilekoak direnak edo gure artean ohikoak direnak —hala nola, frantsesa, alemana, italiera edo portugesa—, okzitania, Katalunian nolabaiteko koofizialtasuna duen hizkuntza delako³, eta munduko beste hizkuntza nagusi batzuk, hala nola, arabiera, errusiera, japoniera edo txinera.

Ingelesak gure gizartean eta hezkuntza-sisteman duen paperari buruzko egungo eztabaidaren aitzin-aitzinean kokatzen den eredu linguistikoa bakarrik zehazten du, ziurrenik, helburu horrek. Helburu hori

Hirueletasunerako bideari ekingo dio pixkanaka unibertsitateak; bidea luzea izango da agian, eta ez du atzera bueltarik izango; etorkizun eleaniztun batera zuzenduko ditu gizarte katalana eta unibertsitatea bera.

Asmo horiek oinarri hartuta, Pompeu Fabra Unibertsitateko Eleaniztasunerako Ekintza Plana diseinatu du Pompeu Fabra Unibertsitateak.

Horrek erronka hirukoitza dakar epe motzerako eta ertainerako. Lehenik, zehaztu egin behar da katalanak unibertsitateko hizkuntza ofizial eta tradizional gisa duen papera.

Bigarrenik, beste hizkuntza batzuen erabilera ere bermatu behar da. Hasiera batean, gaztelania eta ingelesa erabiliko dira.

lortzeko, estrategia bat ezarri da, eta honako lau faktore nagusi haueetan oinarritzen da.

1. Katalanaren presentzia sendotzea eta handiagotzea unibertsitate-jarduerako esparru guztietan, irakaskuntza eta ikerketa barne — hiruugarren zikloko ikasketetan bereziki—; eta hizkuntza eta kultura katalanaren ospea areagotzen eta horiek nazioartean zabaltzen laguntzea⁴.
2. Unibertsitateko “laneko hizkuntza” izendatzea ingelesa, horrek ekar ditzakeen ondorioekin, bai irakaskuntzan eta ikerkuntzan, bai eta unibertsitateko administrazioan ere.
3. “Hizkuntza-segurtasunaren” printzipioa ezartzea eta bermatzea ikasleentzat eta irakasleentzat, horrek ekar ditzakeen ondorioekin (funtsean, jarduera akademikoetarako erabiltzen den hizkuntzari buruzko informazioa eskuragarri egongo da edonorentzat, eta lotesle izango da). Horregatik, izena ematean, horri buruzko informazioa jasoko da web-orriaren bidez.

Ondorioz, hizkuntza-segurtasunaren printzipioari jarraiki —bai irakasgai bat irakasten duen irakasleari dagokionez, bai eta eskola jakin batean parte hartzen duen ikasleari dagokionez ere—, eskolak hasi baino lehenago iragarritako hizkuntzan gauzatuko eta emango dira jarduera akademikoak eta ikasketa-materiala, azterketak barne, irakasgaiak irauten duen artean. Izan ere, gai nagusia, ordutegia, gainditzeko gutxieneko maila, irakurketak, azterketak eta abar ez dira eztabaidatuko; hortaz, hizkuntza-segurtasuna bermatzeko, egoera guztietan aplikatuko da aipatutako araua —irakasle-aldaketa egonda ere, edo ikasleren batek hizkuntzaren batean akatsak egiten baditu ere—. Hizkuntza-aukera hori ez da inola ere aldatuko, eta ikasleek eta irakasleek ezingo dute horren gaineko akordiorik egin.

4. Protokolo bat ezartzea gelan eleaniztasuna kudeatzeko. Horren bidez, zenbait hizkuntza erabili ahal izango dira batera elkarrengi-ean, eta parte hartzen duten alderdi guztien hizkuntza-eskubideen eta -betebeharren arteko oreka lortuko da, eleaniztasunerako aurre-rapausoak eman ahal izateko.

Jarraian azaltzen dira Bologna prozesuko titulu berrietako ikasleen eta irakasleen hizkuntza-eskakizunak. Horiez gainera, aurrez aipatutakoak esan nahi du ikasleek eta irakasleek jakintza *aktiboa* izan behar dutela hiru hizkuntzetako batean gutxienez, hau da, hizkuntza hori ulertzeko eta hitz egiteko gai izan behar dutela. Gainera, jakintza *pasiboa* izan behar dute gainerako bi hizkuntzetan, hau da, horiek erraz ulertzeko gai izan behar dute. Ondorioz, guztiek izan behar dute nahi duten hizkuntza erabiltzeko aukera eta beste bi hizkuntzak ulertzeko gaitasuna. Hala eta guztiz ere, hori betetzen ez bada, edo ez pertsona guztiei dagokienez behintzat, irakasle edo

ikasle batek hizkuntza batean izan dezakeen urritasuna —hau da, hiru hizkuntza horietako bat ez jakitea edo behar bezala ez jakitea— inola ere ez da hartuko unibertsitatearen urritasuntzat. Norbanakoaren urritasuntzat hartuko da, eta, halere, inork —ez irakasleek, ez ikasleek, ez erakundeak— ezingo du ikasketa- edo erakunde-jardueren hizkuntza aldatu horregatik. Printzipio horiei jarraiki, bai ikasleek, bai eta irakasleek ere, eskubidea izango dute bi hizkuntza ofizialetako zein erabili nahi duten erabakitzeko, hau da, katalana edo ingelesa. Azken horiek, betiere, dagokien zentroak edo erakundeak berak emandako jarraibideen edo onarpenaren mende egongo dira. Horrek aukera eman behar luke unibertsitatearen irakaskuntza-hizkuntza propio baten erabilera bultzatzeko, eta, bestalde, aurrerapen zorrotza eta sendoa egiteko unibertsitate-komunitatean hiru hizkuntzak erabiltze aldera; aukera ugari sorraraziko ditu horrek.

Ekintza-planaren egitura hiru aplikazio-esparrutan banatzen da: erakunde-esparrua, ikasketa-esparrua eta administrazio-esparrua. Bost ekintza-arlo zehazten ditu planak, hain zuzen ere, arautzea, informazioa ematea, prestakuntza ematea, laguntza ematea eta kutura-arteko topaketak sustatzea, eta hogeita bost ekimen proposatzen ditu arlo horietako bakoitzerako (ikus Pérez-Vidal, 2008; planaren barne-kudeaketa azaltzen du xehetasun handiagoz, erakundeko interes-taldeei dagokienez).

EKINTZA-PLANAK zehazten ditu hizkuntza-plangintza (hirugarren zikloko ikasketei eta graduondokoei dagokienez, zehazki, eta unibertsitateari dagokienez, oro har) eta alderdi administratiboak, behin honakoak zehaztu ondoren: aurreko baldintzak (ingelesa lan-hizkuntza gisa UPFn), kontzeptu nagusiak (hizkuntza-segurtasuna, irakaskuntza-hizkuntza derrigorrezkoa eta loteslea izatea) eta unibertsitateko jarduera akademiakoetako komunikazio-elkarreragina arautzen duten oinarrizko arauak (gelako eleaniztasunarekin lotutako eskubideak eta betebeharrak).

4. HIZKUNTZA-PLANGINTZA UPF-KO BOLOGNA PROZESUKO TITULUETARAKO

UPFk bi baldintza ezartzen ditu titulu berri guztietarako, Espainiako ministerioaren arauetara jarraiki 4+1 formatua dutenetarako: a) nazioartekotzea bermatzea, mugikortasun-programen bidez, gradu hiruugarren urteko lehenengo hiruhilekoan edo gradu laugarren urtean egiten diren praktketan; b) “etxean nazioartekotzea” (IaH) bermatzea gainerako ikasleei dagokienez. UPFn, ikasleen %25ek parte hartzen du mugikortasun-programetan. Gainerako %75 bertan gelditzen da, eta etxean nazioartekotzen dira ingelesez irakasten diren irakasgai multzo arautu baten bidez: *Edukien eta Hizkuntzen irakasgai integratuak (ICL)*. 16 ECTS kreditu lantzen dira arlo horretan 3. eta 4. urtean. Horrez gainera, ikasleek parte

Ekintza-planaren egitura hiru aplikazio-esparrutan banatzen da: erakunde-esparrua, ikasketa-esparrua eta administrazio-esparrua. Bost ekintza-arlo zehazten ditu planak, hain zuzen ere, arautzea, informazioa ematea, prestakuntza ematea, laguntza ematea eta kutura-arteko topaketak sustatzea.

Ikasleen %25ek parte hartzen du mugikortasun-programetan. Gainerako %5 bertan gelditzen da, eta etxean nazioartekotzen dira ingelesez irakasten diren irakasgai multzo arautu baten bidez: Edukien eta Hizkuntzen irakasgai integratuak.

har dezakete UPFra etortzen diren nazioarteko ikasleekin antolatzen ditugun topaketetan.

Bi mota horietako nazioartekotzea gauzatu ahal izateko, ingeles-maila jakin bat izan behar da 2. urtearen amaierarako, eta unibertsitateak B2 mailan ezarri du muga hori Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren (CEFR) arabera (ikus Europako Kontseilua, 2001). Unibertsitateak aukerako azterketa bat ezarri du bigarren urtearen amaierarako, ikasle guztiek nahitaez egin behar dutena ICL irakasgaiak hasi baino lehen.

PAMen esparruko hizkuntza nagusiak dira katalana, gaztelania eta ingelesa. Ikasleek, unibertsitatera sartzean, ingelesean B2 maila dutela egiaztatzen bada, beren ingeles-maila hobetzera bultzatzen ditugu, edo gure Hizkuntza Zentroan irakasten den atzerriko beste hizkuntza bat ikastera: ingelesa, alemana, frantsesa, italiara, japoniera, txinera, arabiera, katalana eta gaztelania. Kanpoko erakundeetako ziurtagiri ofizialak onartzen ditugu. Ikasleek 6 ECTS kreditu lor ditzakete beren ikasketetan zehar gauzatutako hizkuntza-ikastaroen eta lortutako ziurtagiriaren bidez.

5. Eleaniztasunerako ekintza-plana (pam) gauzatzea

UPFko hizkuntza-plangintza, gradu aurrekoa eta graduondokoa, da emaitzak eskuratzeko lehenengo pausoa, eta honela deskriba daiteke:

Titulu berrietan:

- a) Gradu aurreko ikasketetako bigarren urtearen amaierarako, ikasleek B2 maila izan behar dute ingelesean (ikus Pérez-Vidal, 2010; egiaztapen- eta ziurtatze-prozedurei buruzko xehetasunak aztertzeko).
- b) Titulu guztietako hirugarren urteko (2010eko lehenengo taldearentzat) bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan, ingelesez irakasten dira bi irakasgai. Ikasleek aurreko baldintza betetzen badute, irakasgai horiek ingelesez lantzeko gai izango direla bermatzen da.
- c) Hirugarren urteko lehenengo hiruhilekoan, mugikortasun-programetan parte hartuko du ikasleen %25ak. B2 maila eduki behar dute derrigorrez ingelesa hitz egiten den herrialdeetara joateko. C1 maila eduki behar dute Ivy Ligako unibertsitateekin antolatutako trukeetan parte hartzeko.
- d) Itzultzen direnean, ingelesez irakasten diren bi irakasgaiak landuko dituzte hirugarren urtean.
- e) Laugarren urtean, beren tituluko beste bi irakasgai landuko dituzte ingelesez.
- f) Ingelesez idatzitako gradu amaierako proiektuak prestatzen ari dira titulu batzuetan (ingeniaritza, enpresen administrazioa, itzulpena eta interpretazioa).
- g) Gradu batzuek nazioarteko lanpostuak eskaintzen dizkiete ikasleei (ingeniaritza).

ah) Ikasleek parte har dezakete topaketak antolatzen dituen hizkuntza-boluntariotza batean:

- a. Hamar ekitaldi sozial Bartzelona inguruan eta Katalunia osoan.
- b. 500 bikote urteko (duela hamar urte jarri zen abian Kataluniako ekimen hau).

Graduondoko titulu berrietan:

- a) Duela hiru urte ezarri ziren UPFn Bologna prozesuko masterrak.
- b) Nazioartekotze-estrategiari jarraiki, horietako batzuk ingelesez irakasten dira, gutxi batzuk gaztelaniaz, eta are gutxiago katalanez.
- c) Hizkuntza-eskakizunak sistematizatzeko asmoa dago laneko hizkuntzei dagokienez; izan ere, nazioarteko gero eta ikasle gehiagok hartu nahi dute parte programan. Eskakizunak desberdinak dira ingelesari dagokionez.
- d) "Hizkuntza-segurtasunarekiko" kezka ere badago; masterrak iragartzen dituzten liburuxketan adierazten da zein izango den master-ikastaroko hizkuntza nagusia.

Gradu aurreko truke-programetan:

- a) Ikasleek B2 maila izan behar dute gaztelanian eta katalanean; edonola ere, oraingoz, gradu aurreko ikasketak gauzatzen ari diren nazioarteko ikasleek ez daukate gure lan-hizkuntzen gaineko ezagutza egiaztatu beharrik.
- b) Katalana ikastea erabaki dezakete, hala nahi izanez gero.
- c) Ikasle kopuru handiak parte hartzen du gaztelaniako atariko ikastaro batean; mugikortasun-programa batzuen baitan eskaintzen da aukerako ikastaro hori.

Ingeles-eskakizunak titulu berrietan:

- a) Lehen urteko ikasle guztiei ematen zaie ingeles-maila egiaztatze-ko sarrerako azterketa bat, aukerakoa.
- b) Ikasleek ez badute B2 maila lortzen diagnosi-azterketa horretan, behar adina eskola hartzeko gomendioa egiten zaie, maila hori lortu arte. Horrela, 6 ECTS kreditu lor ditzakete.
- c) Ikasleek B2 maila dutela erakusten badute, unibertsitateko Hizkuntza Zentroan (*Programa d'Ensenyament d'Idiomes*) bigarren atzerriko hizkuntza bat har dezatela gomendatzen zaie.
- d) Bigarren urtearen amaiera aldera, ikasleek ingeleseko gaitasun-azterketa egin behar dute, lau trebetasunak aztertzen dituena.
- e) Graduko hirugarren eta laugarren urteetan zehar (Espainiak 4+1 eskema aukeratu du), 16 ECTS kreditu izan behar dituzte CLIL irakasgaietan.
- f) Terminologia espezifikuari eta idazmenari eta mintzamenari buruzko bi irakasgaien bidez lortzen dira 16 ECTS kreditu horietatik 8.

Gradu aurreko ikasketetako bigarren urtearen amaierarako, ikasleek B2 maila izan behar dute ingelesean.

Ikasleek B2 maila izan behar dute gaztelanian eta katalanean.

Bestalde, pizgarriak ere erabiltzen ditugu: adibidez, irakaskuntza ebaluatzean, puntuak ematen dizkiegu ingelesa eta katalana erabili duten irakasleei, horiek beren ama-hizkuntza ez badira.

Langileek C1 maila eduki behar dute ingelesez edo katalanez irakatsi ahal izateko.

g) Lorpen horiei buruzko informazioa jasoko da Tituluaren Gehigarri Europarrean.

Irakasleen prestakuntzako egitasmoa eta pizgarriak:

2008-09 ikasturteaz geroztik, egitasmo bat ezarri da irakasle guztiek antzeko trebetasunak izan ditzaten ingelesean. Era berean, katalanaren erabilera sustatzeko egitasmo bat ere ezarri dugu. Bestalde, pizgarriak ere erabiltzen ditugu: adibidez, irakaskuntza ebaluatzean, puntuak ematen dizkiegu ingelesa eta katalana erabili duten irakasleei, horiek beren ama-hizkuntza ez badira.

Hizkuntza-laguntzarako, bi egitasmo espezifiko diseinatu ditugu helburu hori lortzeko; bata ingelesarentzat, eta bestea katalanarentzat.

Ingelesa sustatzeko PAMeko egitasmoa

UPFn, irakasleei zuzendutako erakundeko laguntza-egitasmoak, aukerakoa denak, formatu deszentralizatua aukeratu du. Barneko prestakuntza-egitasmo bat gauzatu da dekanoeekin, hiru modulutan banatzen dena:

1. modulua: CLIL metodologia orokorra. Ahozko gaitasuna. Idatzizko gaitasuna.
2. modulua: hizkuntzaz jabetzeko modulu orokorra. B2.1. eta B2.2. mailak.
3. Hizkuntza-laguntza: testuak zuzentzea eta itzultzea. Glosategi espezifikoak diseinatzeko trebakuntza.

Langileek C1 maila eduki behar dute ingelesez edo katalanez irakatsi ahal izateko.

Katalana sustatzeko PAMeko egitasmoa

UPFn, irakasleei zuzendutako erakundeko laguntza-egitasmoak, aukerakoa denak, formatu zentralizatua du. UPFko Hizkuntza Zentroak ikastaro trinkoa eskaintzen die lanean hasi aurretik katalana hitz egiten ez duten eta lehen aldiz erakundean sartuko diren irakasleei. Irakasle guztiek izan behar dute katalana ulertzeko gai, bai eta beren ikasleek katalanez idatzitako lanak zuzentzeko gai ere. Gainera, katalan-maila altuagoa edukitzea gomendatzen da; hau da, katalan-ikastaroak hartzea gomendatzen da, maila bat edo bi urteko, B1 edo B2 mailara heltzeko, hurrenez hurren. Pizgarri-sistema bat ere badago, kategoria-igoerekin lotua; katalana ama-hizkuntza ez duten irakasleek katalanera pasatzeko erabakia hartzen badute, puntuak ematen zaizkie, eta igoera pedagogikoa lortzen lagunduko diete puntu horiek.

Administrazioko langileek B2 maila (edo B1) dutela egiaztatu behar dute lan finko bat eskatzerakoan, eta aldi baterako lan bat eskatzen dute-

nek, berriz, katalana badakitela erakutsi behar dute. Katalanez trebetasun espezifikokoak lantzeko barneko prestakuntza-zerbitzu bat eskaintzen zaie (idazmena).

Laburbilduz, UPFk bideak, prestakuntza-egitasmoak eta ziurtapen-sistemak eskaintzen dizkie ikasleei; derrigorrezko itxura ematen die horiei, baina ez dira derrigorrezkoak. 16 ECTS kredituak soilik dira derrigorrezko ikasleentzat. Izan ere, tokiko agintaritzek ez dute kanpo-eskakizunik ezarri arlo horretan, eta UPFk ez du ezarri nahi Kataluniako gainerako unibertsitateek ezarritakoak baino eskakizun akademiko zorrotzagorik.

UPFk, bestalde, prestakuntza-egitasmo bat eskaintzen die irakasleei CLIL eta katalan arloetan. Horrez gainera, pizgarri- eta erantzukizun-sistema bat ezarri du irakasleek hizkuntzen alorrean egiten dituzten ahaleginak aintzat hartzeko.

6. PAMEN AURRETIKO EMAITZAK

Oraingoz, emaitzak lortu ditugu honako bost esparru hauetan:

- a) Graduatu gabeko tokiko ikasleek konpromiso handia erakutsi dute UPFko “aukerako” egitasmo eleaniztunarekiko. Planaren lehenengo urtean, hau da, 2009an, lehen urteko ikasleek beren borondatez egin zuten ingeles-maila neurtzeko azterketa (%85,3). Honako hauek izan ziren emaitzak, ehunekotan, CEFR-ren arabera: %38 B1 mailaren azpitik zegoen; %18,6, B1 mailan; %45,4, B2 mailan; %13,4, C1 mailan; %0,8 C2 mailan. Emaitza horiek barne hartzen dituzte urte horretan hasi berri ziren Bologna prozesuko sei tituluetako ikasleak. Honako hauek dira titulu horiek: biologia, medikuntza, itzulpena, zinema-ikasketak, giza zientziak, harreman publikoak eta publikitatea. Aurten, beste hamalau titulu jarri dira martxan, hizkuntza-politika berarekin. 2010eko irailean egindako azterketak honako emaitza hauek izan zituen, ehunekotan, CEFR-ren arabera: %30,9 B1 mailaren azpitik zegoen; %38,7, B1 eta B2.1. mailetan; gainerako %30,4 B.2.2. mailan edo goragoko maila batean.
- b) Nazioarteko ikasleek konpromiso handia erakutsi dute katalaneko prestakuntza-egitasmoarekiko. Aukerako katalan-eskolak eskaintzen dizkiegu nazioarteko ikasleei, eta gure hizkuntza-zentroan ematen dira horiek. Gure nazioarteko ikasleen %50ak katalaneko 45 orduko sarrera-modulu batean parte hartu du gutxienez. %25ak hiru modulu egin ditu. Datu horietan barne hartzen dira Erasmus ikasleak eta graduondokoak; azken horietako askok egin dituzte hiru moduluak.
- c) Ikasleei 6 kreditura arte onartzen zaizkie beren espediente akademikoetan, hala erabakiz gero.
- d) Beren borondatez katalana erabiltzeko erabakia hartu duten irakasleen ehunekoaren bilakaera, katalana beren eguneroko komuni-

Irakasle guztiek izan behar dute katalana ulertzeko gai, bai eta beren ikasleek katalanez idatzitako lanak zuzentzeko gai ere.

Administrazioko langileek B2 maila (edo B1) dutela egiaztatu behar dute lan finko bat eskatzerakoan.

Graduatu gabeko tokiko ikasleek konpromiso handia erakutsi dute UPFko "aukerako" egitasmo eleaniztunarekiko.

Nazioarteko ikasleek konpromiso handia erakutsi dute katalaneko prestakuntza-egitasmoarekiko.

kaziorako eta eskolak emateko erabiltzen dutenena (datuak azalekoak dira oraindik: gure hizkuntza-zentrora jo dute hamar irakasle inguruk 2009an eta, gutxi gorabehera, beste hainbestek 2010ean, beren katalan-maila hobetzeko).

e) Irakasleek konpromiso handia erakutsi dute ingelesa sustatzeko egitasmoarekiko, bai eta katalana sustatzeko egitasmoarekiko ere.

f) 2009az geroztik, hirurogei irakasle inguruk erabaki dute ingelesa sustatzeko egitasmoan parte hartzea. Katalana hitz egiten ez dutenen artean katalana sustatzeko egitasmoak hamabost bat irakasle bildu ditu urteko. Komunikazioko oinarritzko trebetasunak lantzen dira ikastaroan, eta ikasturtea hasi baino lehenago gauzatzen da. Irakasleek ulertzeko gaitasuna izatea bermatu behar luke, ikasleek gelan katalana edo gaztelania erabiltzeko duten eskubidea berma dadin.

7. ONDORIOA

Denbora pasatu ahala ikusi ahal izango dugu zein diren UPFn abiarazi berri den Eleaniztasunerako Ekintza Planaren indarrak eta ahuleziak, gure helburuak betetzeko behar dugun finantza-laguntzak huts egiten ez badigu, eta unibertsitateak bere buruarentzat ezarritako helburuak mantentzen badira datozen urteetarako.■

ERREFERENTZIAK

Cenoz, J. eta Genesee, F.: *Beyond Bilingualism: Multilingualism and Multilingual Education*, Multilingual Matters, Clevedon, 2002.

Europako Batzordea: *Teaching and Learning: Towards The Learning Society*, 449 Hezkuntzari eta ikaskuntzari buruzko liburu zuria, DGV, Brusela, 1995.

Europako Batzordea: 590 *Promoting language learning and linguistic diversity: An action plan 2004-2006*, DGV, Brusela, 2003.

Europako Erkidegoen Batzordea: *A rewarding challenge. How the multiplicity of languages could strengthen Europe*, Amin Maaloufen gidaritzapeko kulturarteko elkarrizketarako intelektual taldea, DGV, Brusela, 2008.

Europako Kontseilua: *Common European Framework of Reference for Languages: Learning, Teaching, Assessment*, Cambridge University Press, Cambridge, 2001.

Orban, L.: 'Multilingualism and competitiveness', Enpresei buruzko Europako Gailurrean aurkeztutako txostena: 'Entrepreneurship: Europe is our Business'. Brusela, 2007ko martxoaren 16a. <http://europa.eu/rapid/pressReleasesAction.do?reference=SPEECH/07/151&format=PDF&aged=0&language=EN&guiLanguage=en>

Perez-Vidal, C.: "Las políticas multilingües universitarias en el EES: ¿Cómo acreditar las competencias en lenguas?", in *Primeras Jornadas Internacionales sobre EEES: Evaluación 4 y 5 de febrero 2010*, Universitat Internacional de Catalunya, Bartzelona, 2010.

- Perez-Vidal, C.: “Política lingüística catalana dins l’EES a la Universitat Pompeu Fabra: El Pla d’Acció pel Multilingüisme”, in Marti Castell, J. eta Mestres i Serra, J.M. (arg.): *El multilingüisme a les universitats en l’espai europeu d’educació superior (Actes del seminari CUIMPB-CEL 2007)*, Institut d’Estudis Catalans, Bartzelona, 2008.
- Tudor, I.: “Higher education language policy: Why and how?” in Lauridsen, K. eta Toudic, D. (arg.): *Languages at Work in Europe: Festschrift in Honour of Professor Wolfgang Mackiewicz*, V&Runipress, Göttingen, 2008.
- Tudor, I. eta Mackiewicz, W.: “Bologna and languages: Reference points for higher education language policy development” in Perez Canado, M. (arg.): *English Language Teaching in the European Language Credit Transfer System: Facing the Challenge*, Peter Lang, 2009.
- Van de Craen, P. eta Perez-Vidal, C. (arg.): *The Multilingual Challenge/Le défi Multilingue Final Report 2000*, Europako Batzordea - Pompeu Fabra Unibertsitatea, Bartzelona, 2001.

Irakasleek konpromiso handia erakutsi dute ingelesa sutatzeko egitasmoarekiko, bai eta katalana sustatzeko egitasmoarekiko ere.

OHARRAK

1. Ildo horri jarraiki, unibertsitateak ahaleginak egiten ditu Europako Batzordeak azken urteotan hizkuntzen eta eleaniztasunaren inguruan ezarritako helburuak lortzeko. Hezkuntzari eta Prestakuntzari buruzko liburu zurian zehazten dira horiek: *Teaching and Learning. Towards the Learning Society* (1995). Horren arabera, kontinenteko biztanle guztiak menderatu behar dute ongi beren hizkuntza, bai eta beste bi ere gutxienez.
2. “Nazioartekotzea eta mugikortasuna sustatuko badira ere, Kataluniako ezaugarri kulturalak mantendu behar dira unibertsitatean, bai eta, bereziki, hizkuntza propioa ere, hori baita Kataluniako unibertsitateetako hizkuntza”. (1/2003 *Legearen hitzaurrea, Kataluniako unibertsitatei buruzkoarena*).
3. “Okzitanierari *aranes* deitzen zaio Val d’Aranen. Eskualde horretako hizkuntza da, eta ofiziala da Katalunian, Kataluniako Autonomia Estatutuaren eta hizkuntza-normalizazioko araudiaren arabera”. (6. artikulua. *Kataluniako berezko hizkuntza eta hizkuntza ofizialak, Kataluniako Autonomia Estatutuan 2006*).
4. Adibidez, ikus Pompeu Fabrak argitaratu berri duen idazlan aukeratuen ingelesezko edizioa. Pompeu Fabra Unibertsitateak eta John Benjamins publishers argitaletxeak gauzatu dute ekimen hau: *The Architect of Modern Catalan Pompeu Fabra (1868-1948) Selected writings*. Orain arte, katalanez soilik lor zitekeen katalanaren normalizazioari buruzko lan hori.